

# Ip<sup>FF</sup>agiFi<sup>8</sup>e, IMerfeaFi?

Eon urte cS zala

Aurten eun urte kantari urduri au il zitzaigula. Ez dira, au dala-ta, ospakizun gutxi eratu gure errian, eta gure girotik kanpo ere bai, Madrid'en adibidez. Eta ezingo du inork ukatu jaiok ondo mereziak zituanik. Naiz eta «arlote» deitu, bazuen ark zafietan euskal adorerik eta giarrrik: gizaseme jatorra, ziiiez, bere garaian eta gaur ere bai oraindik. «Iparragirre» ezta abizen utsa, izatasunez aseba baizik.

Gizaseme guren au Urretxu'n jaió 1820'ko agustuaren 12'an. Andik amabi bat urtera Madrid'en dago ikasten; baifia Fernando VII' garrena il da, eta beingoan sortzen da karlista ta liberalen artean guda, burruka latza Euskalerriko mendi, troka ta urietan. Emen dabil Iparragirre be, dinoenez oifiez etorrita, karlista gudari artean. Arrigorriaga'n bernea zauritu diote, Kastrejana'ko zubian arpegia ta Mendigorria'n burua. Itxurako mutila da-ta, Zumalakarregui'k On Karlos erregearentzat gudari berezi aukeratu du. Gisa orretan ibillia dugu gerra bukatu artean.

Gero, beste asko bezela, ondamendiaren pena eraman ezinik, erbestera jo zuen, Frantzia'n, Italia'n, Suiza'n, Alemania'n eta Ingalaterra'n kantari ibillirik. Kitarra bat zuen lagun, ez lagun kaskarra;

67

neurtzilari on, ez zizkion zernaitako doifmak ateratzen aren ari leun mordoari. Boemi-taldeekin, gau-zale ta antzokietan ari izan zan, sekulako iskanbillak sortuazorik; Paris'en eta inguruetan ere, errepublikiaren aldeko, naiko zarata ta zurruburu atera zuen, eta Prantziko agintariak aizatu egin zuten bere erresumatik.

Londres'en Mazarredo bilbotar guda-burua aurkiturik, onek lortu zion barriz Euskalerrira etorteko baimena. Eta emen, bere lur maitetan, bere biyotz sutsuaren txinpartakin piztu zuen euskaldunen artian Lege Zarra'ren aldeko naitasun bizi eta pizkorra; espainar agintariak ez zuten au begi onez ikusi ta espetxean sartu zuten Tolosa'n; ordukoa da «Zibillak esan naute» asten dan olerkitxo. Atera zuten giltzapetik, baina Euskalerritik aide egiteko agindu zioten; orduan, Santander, Asturias eta Galizia'tik zear Portugal'era jo zuen.

Berriz ere, biotzak ez lagatzen-eta, Euskalerrira itzuli zan. Baita egun batez Madrid'era joanda, ango euskaldunen aurrean, San Luis kafetxean, bere «Gernika'ko Arbola» abestu ere. «Iparragirre'k —diosku A. Arrue'k—, bere erriaren auldutako kemena nolarebait indarberitu nairik edo, orain eun urte sortu zun eta kantatu lenengoz Madrid'en bere «Gernika'ko Arbola», euskaldunon oroipen guziak, euskaldun maitetasun guziak, euskaldunon itxaropen guziak beregan laburkiro bildurik bezela daramazkin kantu zoragarri ori». 1853'garren urtea zan.

Bolbolka zerabillen bai urretxuar jatorrak euskalduntasuna, eta nunnai kantuari ekin bear. Onek ala ere etsaia sumnazten: etzioten irlolaz ere paketan uzten eta, gogait eginik noski, Amerika'rako bidea artu zuen. An bizi izan zan, Anjela Kerexeta tolosarrarekin ezkondua, Uruguai'n geien bat, ogei urte ta geiago, gaur artzai ta biar txiribogin. Eta atertu bage kantari, «kitarra zartxo lagun».

Zaartua zegoen aspaldixe. Ta bere euskal errira itzuli-min. Argentina'ko ta Uruguai'ko euskaldun adiskideak lagundurik, etxera bidea artu zuen 1877'an, urrillaren 20'an Bordel'en lurra ikuturik Endaia'ra eldu zanean, onela abestu zuen, Ondarrabi, Irun, Aia mendiak eta Jaizkibel begipe zituelarik: «Ara nun diran / mendi maiteak». Eta Gabiriko Txapartegi baserrian, bere amaren sorlekuan, geratu zan biziten. Lendabizi estu samar ibilli zanagatik, azkenerantza, Euskal lau Aldundiak jarri zioten diru-laguntasunaz, naiko egoki moldatu al izan zan. Onela, Itxaso erritxoan dagon Zozabarrotxiki baserrira aldatu zan; ementxe il zan 1881'ko apirillaren 6'an, zearreko minaz.

Eta Antonio Arrue'k onela: «Ta biaramonean, goizean goiz, emen ekarri zuten Urretxu-ko illerrira, bere bizitza guztiko amets eta gogoa beteaz, Euskalerra'ko seme zintzo, prestu ta leial aren gorputza. Bitartean, Zozabarro-txiki baseman, an lurrean bazter batean, beti betiko mutututa, bere gitarra zartxo maitea gelditzen zan. (Gaur Gernika'ko Batzar-etxean aurkitzen da). Ta ipuiak dio, «arrats artan, basa-txori zoli batek, Gernika'ko Arbola'ren goiko erpinean gau guzia kantari etengabe igaro zuala, Urretxu'ko urretxindorraren aide bere kantu-negar-otoitza Jaun Zerukoari eskeniaz».

### Ipanragirre, olerkari

Gizasemeoi etzaigu bat ere errez geure iritzietan erdiko edo alderdi gabe izatea; eta onetan, maiz, ez-jakin kutsua edatu oi dugu. Ezdakigu bakoitzari berea ematen. Geuri eder zaiguna izarretan ipifii ta etzaigu eratsi, edo-ta ixil-erazi afflo zitalez, au da egin oi duguna; eta edozein umek ere ba-daki au bidezko ez dana.

Onelaxe egin izan da Iparragirre'rekin ere, ez dugu jakin aren izate ta giroa ikasi ta izate ta giro orren frutua jaso ta bear bezela zenbatean jotzen. Iritzietan, jakifia, norbere kulturak eta ao-xuriak asko esan nai du; baina, ala ere, urretxuar trebeakin —beste euskal idazle lengo ta oraingo askorekin legez— ez dugu zuzenki jokatu. Onek goi-goi jarri du, eta ark be-bean narras irauli.

Gorago aipatu dugun A. Arrue'k, esaterako, au dio: «Olerkari ta bertsolari gutxi izan ditu Euskalerra'k, oso gutxi ere, Iparragirre bezelakoak. Bera bezin onak eta obeak ere, bai noski. Bana ezaguna-goak eta batez ere gure erriaren gogokoak, bat bakarrik ere ez apika. Guziok ondo ezagutzen dezute erri txiki bateko eliz-kanpaiarekin gertatzen dan miraria, erdipurdikoa izan arren, batzutan alai, besteetan illun, beti erriko gora-berakin batean, bere sonua bezin atseginakorik ez da lurbira guzian bertan jaio, azi ta bizi diranentzat».

Iparragirre lengo joan mende erdiko neurtzilaria, koplaria obeki, dugu. Ordukoak dira, beste batzuen artean, Gelbentzu, Artolatarrak, Bilintx, Xenpelar, Azkarate, K. Otaegi ta abar Gipuzkoa'n, eta Felipe Arrese-Beitia Bizkaia'n, erromantizismuaren garai artakoak noski. Ordukoak baita Zuberoa'n Etxahun eta Lapurdi'n J. Martin Hiribarren eta J. B. Elizanburu, poeta gailenak. Baina nork esango digu urre-

txuarra Arrese-Beitia'ren, Etxahun'en edo Elizanburu'ren maillara irix-  
ten denik?

Iparragirre, bere maillan —garai ta giroan—, Euskalerrri osoko eliz-ezki txiki izana dugu. Minduta zegoen gure erria garai artan, gudu gogorra galdu zuelako; Foruak eta oiturak, erlijioa, izkuntza, bere euskalduntasun osoa galtzeko zorian aurkitzen zalako. Iparragirre'k, ordea, guzti au attu zuen kantagai. Berarekin noranai zeraman kitar-ratxoari berebiziko dofiuak jalgi-azten zizkion; kantari bizi izan zan Euskalerrrian, Europa'n naiz-eta Amerika'n. Etxahun etxeko zoritxar-rak bezela, Iparragirre bere erriaren ezbearrak gertatu zuen olerkari, koplari obeki. Ortik aren arrakasta leen eta gaur-egun.

Gai askoz kantatu zigun. Baifia koplari aberkoia dugu batez ere. Abertzale da osorik aren musa; tinkorik du xede berezia, euskal fo-ruak dakazki itsatsirik adimenean eta biotz-barrenean. - Kezka orren suaz zuzpeltu nai izan zuen erria, Euskal Erria. Ez, ez zitela lo-zorroan erori.

### «Gernika'ko Arhola»

Noiztik ote zekarren barne kantu eder orren musika? Naiz berea izan letra ta musika, naiz ez izan, bikaina dugunik ezin uka. Orduan dardar-azi zituen euskal mendi eta ibarrak, uri ta baserriak, gaur ere, gizaldi bat eta geiago joana dan arren, kezka bardinez zamaturik dauzkagula esan bear, tamal aundiz.

Kitarra zartxoa ta zoritxarra bizkar gain, erbesterik erbeste ibilli zitzaigun ia bizitza osoan. Noiz egona ote dugu Iparragirre Gernika'ko Zugatz-pean? Dana dala, ortxe zegoen bizirik oindio euskaldunen as-katasun ikurra, Arbola santua. Eta barnean josirik zeraman, nun-naira zijoala, orren irudi sorgina; ezin zuen ifiolaz ere beragandik alden-du. Ark uste zuenez, Jainkoak landatua da Arbola santua, eta arrezkero berak zaindu du euzkotarren lege ta oitura zarrak. Eta urretxuarrak diotsa: «Eroritzen ba'zera, arras galdu gera!».

Nolako sentipenez abestuko zuen Sari Luis Kafetxeko euskaldunen aurrean! Ikusgarria bene-benetan —eta gaurko askorentzat ikasbide eder!— laugarren estrofa asterakoan, entzule guztiei eskatu zienean belauniko jarteko.

«Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko,  
Jarri gaitezen danok laster belauniko.  
Eta biotzetikan eskatu ezkeru,  
Arbola biziko da orain eta gero».

Onelaxe da Iparragirre-ren lirika kanta, xalo bezin laua. Ez zuen nai egazkada ausartegirik, erriak berez atzeman ezinezkorik. Zein ote da obe olerki utsezko lainotan ari, ala ozta-ozta igarten dana, oroldi biguin azpitik doan ur-ariaren gisakoa? Beuko bakoitzak bere garai-aulkia.

#### Zein ote gure Aberri-Ereserki?

Ba-da eztabaidarik, gai ontaz, aurten ain zuzen ere. «Gernika'ko Arbola» ala Arana-ren «Gora ta Gora Euzkadi», gure ereserki aundi? Galdera au egin dezakegu DEIA-n eta azken illabeteotan begiraturaz; baiiia gaiotan aitua diran gizaon zentzunezkoentzat ez dago dudarik bion artean, biok beteten bait dute ongi ere ongi bakoitzak bere eina: batek ez beio besteari kendu dagokion lekua.

Ospe aundia zuen, lengo mendean, Madrid'eko San Luis kafetxeak; an biltzen zan uriburuko jenderik autatuena; baita —nola ez!— euskaldunak ere. Akeita artu bitartean era askotariko alkar-izketa, eresialdi ta poesi-esateak ere egin oi ziran. Gau baten, aurretik itzemanan zeukanenez, ara zuzendu zan Iparragirre, kitarra besapean, euskal txapel zapala buruan, bizar kizkurtua musuan eta begiak berri-min. 1853'garren urtea zan. Sarri abestu zuen kafetxe or tan; baina oraingo bestee-tan ez lango zerbaitek dardar zegian airean: gau artan kantu berezi bat kantatzera zihoan Iparragirre. Eta or, Altuna lagun, zortziko berria eiotzen, «Gernika'ko Arbola», 12 estrofa zortziko txikitara dituna. Zugatza kantatzen du, Jainkoak sartua; eror-zori dago, baina ez du lurrik joko, Bizkai'ko Juntiarri esker; etsaiak, bai, arbola botatzia dute asmo, baina Jainkoak guri laguntzen ba'digu, ez dute botako. Orduko euskaldunen sentipen eta biotz-ikaren bilduma tinkoa zan noski, gerora ere millaka ta millaka eztarik otsegina.

«Euzko Abendaren Ereserkia», dakigunez, Arana-Goiri'tar Sabin'ek, 1895'an, Larrinaga'n espetxean egoalarik, gertatu zuen lenda-bizi, eta Deun Ander eguna ospatzeko Txatxarramendi'n bildu ziran 45 bat abertzaleri, karta au bialdu zien, esanez: «Gurutx bi dira Bizkaya-renak: Jaun-Goikua'rena ta Deun-Ander'ena. Onak esan gura dau

bitan gure burubak gurutzaldu biar doguzala, gure errija zorijondu-  
teko: JAUN-GOIKUA'gaitik eta LAGI-ZARRA'gaitik. Gure odolak  
bitzu begiz nozedonoz Areitz Donia ta bere ganian daguan *Gurutz  
Zurijaf*» 1902'an, giltzape egoala, aurreko gogaik ausnartuz, Ereser-  
kia idatzi eban.

Aspaldi bateko Ezpata-Dantza'ren soinuarekin abesteko egifia da,  
geroago, Arana il ondoren, Zabala'tar Kelda'k jarri zion eresia. 1905'an  
Euzko-Alderdi Jeltzaleak beretzat artu zuen, eta geroztik batzoki ta  
euskal-jai abertzaleetan, berau abestu izan zan. 1936'an, Euzko Gober-  
nuak, ezeren duda barik, berau artu zuen Aberri Ereserkizat; eta,  
orduko euzko gudari bipillak, guda oinera zijoaztela «Euzko Gudariak  
gara» abesten zuten bezelaxe, jai aundi naiz indar-erakusteetan, Euz-  
ko-Gobernua aurrean zala egin oi ziran ospakizunetan batez ere, «Gora  
ta gora Euzkadi» otsegiten zan durundutsu.

Onek irakasten digunez, zur-sotil ta buruz jokatu nai izan ezkeru,  
iru kantu ditugu, geure-geureak: Ibillaldi edo martxa baterako,  
«Euzko Gudariak gara»; eztaibazkari ondo batean naiz mendian naiz  
taberna-zulo batean aberri-minez jotako adiskide ta lagun-talde batean,  
«Gernika'ko Arbola»; eta, azkenez, Euzko Gobernuak egiten ditun  
ospakizun aundietan, Batzoki bat zabaltzean, «Aberri-Egunean», eta  
abar, «Euzko Abendaren Ereserkia».

Ereserki au, ortan ikasiak diran guztiak ao batez dioskuenez, eder-  
-ederra dugu. Munduko Aberri-Ereserkietan bikaiiena errusuena omen,  
gero alemanena ta inglesena; oien artean jarten dute gurea ere. Gure  
Ereserkiak ba-dauka euki ere bere aunditasunaren gurena, bai letraz  
eta bai musikaz. Musikaz oskidetsu ta gaillena da, himno ederren  
gisan; letraz ondo pentsatua nunbait: Euzkadi goratzen du lenen, eta  
ondoren bertatik Jainkoa, erri guztien Zaintzaille aundi. Beingoan  
Gernika'ko Arbola'ren gomuta, gure asaben Batzarleku, eta Areitz  
gainean Gurutzea, goi-buru. Izan ere, Euskalerriak duen doirik bi-  
kaiiena, Kristo'ren aurretik eta ondoren, Gurutzea, erlejioa dogu.  
«Gora ta gora Euzkadi» bedi, ba, gure Aberri-Ereserki, ezertxo ere  
ez kendu ez ipini gabe, dagoen bezelaxe.

Iparragirre ta Arana, biak olerkari. Bakoitzak bere giroan ederki  
ziguten jokatu.

*S. Onaindia*